

Iruñea

Aurkibidea

Udalerria: Iruñea

Sarrera



• **Biztanleak:** 197.500

• **Euskaldunak:** %8,9

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **10**
- Zintak: **9**
- Pasarteak: **106**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **106**

Proiektuak

- Gazte gara gazte
- SOKA: Euskal Dantzaren Urratsetan
- UEU Udako Euskal Unibertsitatea

Hizlariak



Ane Ablanedo Larrion (1973)

Euskal filologian eta Pedagogian lizentziaduna da eta UEUko zuzendaritzako kidea da.



Miren Aranguren Etxarte (1981)

Iruñean jaioa. Herri mugimenduetan ibili zen gaztetatik (gaztetxea, mugimendu feminista...), aldaketa politiko eta sozialen bila. Bilgune Feministako langilea, Emagin dokumentazio eta ikerkuntza zentroan dihardu lanean. "[Gure genealogia feministak](#)" liburuaren egileetako bat da. Musikaria ere bada: [Occhi di Farfalla](#) rock taldeko kidea. Feminismoari buruzko elkarrizketa egin genion, Donostiako San Telmo museoan.



Antxon Charles Ayestaran Laubach (1994)

1994ko otsailaren 12an jaio zen Antxon, Iruñean, eta bertan bizi izan da beti. Hiru senidetan bigarrena da, eta elkarrizketa egin genion garaian ikasten ziharduen, Energia berriztagarrien jirako goi mailako ziklo bat. Aita Iruñekoa du eta Syracusakoa ama. Antxonek gazteleraz, euskaraz zein ingelesez bikain egiten du, eta hizkuntza kontuak, ikasketei buruzkoak, koadrilaren ingurukoak eta energia berriztagarriei buruzko testigantzak eskaintzen ditu.



Naiara Ceballos Vidaurre (2001)

Naiara Iruñean bizi da, aita bertakoa du eta ama Berbintzanakoa. Bi anaia gazteagoak ditu, bikiak. Etxean zein kalean gaztelaniaz egiten du, nahiz eta aitak euskaraz badakien. Lagunekin zein ikastetxean gaztelaniara jotzeko ohitura handia du, euskaraz ere aritu arren.



Ander Garcia Zabalo (1998)

Ander Berriozarkoa da, ama bertakoa da eta aita Andaluziakoa. Etxean gaztelania gailentzen da. Llagunartean euskaraz egiten saiatu arren, guztiek menperatzen ez dutenez, gaztelaniarako joera handia dute.

Ainara Gil Saluet (2001)



Ainara Iruñean bizi da eta bi anai-arrebetatik gazteena da. Ama zumaiarra eta aita Morentinekoa ditu, eta etxean euskaraz aritu izan dira beti. Kalean zein ikastetxean gaztelania da nagusi, nahiz eta euskaraz ere aritzen den, eskolan batez ere.

Patxi Laborda Larrea

Dantza irakaslea da eta koreografoa. Dantzaren inguruan egin zion elkarrizketa Euskal Kultur Erakundeak 2015ean, *Soka* proiekturako.

Iker Mundiñano Galarza *Mundi* (1986)



1986ko ekainaren 2an Iruñean jaioa, Etxarri-Aranazkoa du aita eta Iturmendikoa ama. Iruñean bizi izan da beti, eta bi senidetan zaharrena da. Irakaslea da eta kirola eta mendia ditu gustuko. Elkarrizketa egin genionean IKA euskaltegietako Iruñeko Arturo Campi3n euskaltegian ari zen irakasle, eta hainbat kontuz mintzatu zitzaigun: hezkuntzaz, hizkuntzen irakaskuntzaz, koadrilaz, Iruñeko alde zaharraz, hitanoaz, euskalkiez, euskara batuaz...

Maitane Perez De Heredia (1999)



Maitane Iruñeakoa da, ama donostiarra eta aita Iruñeakoa ditu. Anaia bat dauka eta etxean amaren familiarekin euskaraz hazi da. Kalean ez du euskara asko erabiltzen, baina piraguismoan euskaraz aritzen da.

Mikel Ruano Larriketa (1988)



1988ko irailaren 19an Iruñean jaioa, iruindarra du aita eta Uztarroitzekoa ama. Hiru senidetan gazteena da. Irakasle izateko ikasketak egin zituen Nafarroako Unibertsitate Publikoan. 10-11 urte zituenetik kontserbatorioan jardun du musika eta gitarra ikasketak burutzen. Goi mailako musika ikasketak amaituak zituen elkarrizketa egin genionean, eta karrera amaierako kontzertua prestatzen ari zen, eta baita musika irakasle lanetan eta euskara ikasten ere.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Arturo Campion euskaltegian (IEA-001/005)

Iker euskaltegiko irakaslea da. Iker eta Antxon harrituta daude Mikelen euskara mailarekin, 3 urte besterik ez daramatza eta euskaltegian. Mikelek bere sekretua argitzen du.

2. Gramatika eta helduen hizkuntza-ikaskuntza (IEA-001/007)

Euskara ikasteko garaian ezinbesteko makulu izan du Mikelek euskal gramatika.

3. Euskaraz mintzatzeko, euskaraz pentsatu (IEA-001/009)

Mikelek geroz eta euskara gehiago ikasi, orduan eta gutxiagotan pentsatu behar du gazteleraz.

4. Gazteleraz pentsatu eta euskaraz esan, eta alderantziz (IEA-001/011)

Antxonek ez du sekula ingelesez pentsatu izan euskaraz egiteko, baina bai gazteraz, eta baita itzulpenak hitzez hitz egin ere, baina ederki asko daki hori zilegi ez dena. Euskaraz buruan eraiki eta gazteleraz esaten ere saiatu izan da, baina berbera da arazoa.

5. Bikotearen kuadrillarekin euskaraz (IEA-001/013)

Mikelen bikotearen kuadrilla euskalduna da, eta haiek asko lagundu diote hizkuntza ikasteko prozesuan.

6. Euskarari berriz heldu (IEA-001/016)

Antxonek baztertu samarrik zuen euskara, baina berriz heltzea erabaki zuen. Baina kuadrillan eragitea ez da beti erraza izaten, eta Iker ados dago horrekin. Ikerrek ere bere esperientzia azaltzen du.

7. Hizkuntza ohiturak (IEA-001/018)

Harremanak hizkuntza jakin batean eraikitzen direnean, zaila izaten da hizkuntza ohiturak aldatzea; eta berdina du harremanak zein hizkuntzatan eraiki. Aldaketa beti da zaila.

8. Aitarekin euskaraz (IEA-001/019)

Ikerren eta haren Aitaren hizkuntza hautuak, euskaraz ez dakien hirugarren batekin ari direnetan; esate baterako, amarekin.

9. Euskararen egoera Iruñeko parranda giroan (IEA-001/021)

Iruñean parrandara aterata euskara entzuten da hainbat tokitan, baina eremu jakinak dira horiek.

10. Euskaraz aritzea nekeza izan daiteke? (IEA-001/023)

Iker eta Antxonentzat ez da nekeza, eta Mikelentzat, geroz eta gutxiago. Hala ere, egunean zehar ez dira euskaraz uneoro ari.

11. Iruñean euskaraz bizi (IEA-001/025)

Ikerrek ez du uste, egun, Iruñean euskaraz normaltasunez bizitzeko aukera dagoenik; muga handienak administrazioan daudela uste du. Slabuespenak beti badira, baina...

12. Iturramako ezustea (IEA-001/027)

Taldetxo batek, Iker tartean zela, Iruñeko Iturrama auzoan ikerketatxoa egin zuen komertzio eta saltokietan euskararik bai ote zekiten jakiteko, eta ikusi zuten uste baino jende gehiagok dakiela euskaraz.

13. Irakurzaletasuna (IEA-002/002)

Antxonek bere irakurzaletasunaren zergatik diosku, baita zein liburu atsegin dituen ere.

14. Liburutegiak zertarako? (IEA-002/003)

Liburutegiko erabiltzaile eta ikasle gisa, liburutegien ordutegiak zabalagoak izan beharko luketela uste du.

15. Eleaniztuna izatea (IEA-002/004)

Antxonen ama estatubatuarra da eta ondorioz, Antxon txikitatik eleanitza izan da. Hiru hizkuntza hitz egiteak haurtzaroan arazoak zerkarzkion arren, egun ingelesez, gazteleraz eta euskaraz arazorik gabe mintzatu daiteke.

16. Ostiralak lagunekin egoteko (IEA-002/005)

Ostiralak sakratuak dira lagunekin egoteko.

17. Euskaltegiko metodologia (IEA-002/007)

Euskaltegiko metodoak egokiak dira euskaraz ahozketasuna lantzeko. Ahozkoari garrantzi handia ematen zaio eta horrek ikasten laguntzen du.

18. Energia berriztagarriak eta birziklapena (IEA-002/008)

Energia berriztagarrien inguruko goi-mailako ziklo bat ikasten ari da Antxon. Energia berriztagarriei dagokionez Nafarroa mundu mailan eredugarria dela uste du. Berziklatzeko ohituraren inguruan ere hitz egiten du, bere kasuan etxetik datorkion ohitura bat da.

19. San Ferminak Iruña nazioartean kokatzeko erreferentzia (IEA-002/010)

Iruña San Ferminengatik ezaguna dela berresten du. Familia munduko txoko desberdinetan izateak bidaiatzeko aukera asko ematen dituela dio.

20. Alde zaharrear bizita: ezin etxera joan (IEA-003/002)

Alde Zaharrear bizitzeak dituen alde onak eta alde txarrak aipatzen ditu Ikerrek pasarte honetan. Lagun asko ditu Ikerrek bertan, eta asteburuetan ezin etxera joan ibiltzen dela kontatzen digu.

21. Lagunartean, euskaraz? (IEA-003/004)

Kuadrillan batez ere gaztelaniaz hitz egiten dute Ikerrek eta bere lagunek, izan ere, euskaraz erregistro informalik ez zuten eta umorea egiteko gaztelaniaz eraiki zituzten euren harremanak.

22. Institutuko hizkuntza erregistroa (IEA-003/005)

Ikerren iritziz, institutura joaten diren gazteek bai euskaraz eta baita gaztelaniaz ere erregistro ezberdinak dituzte, eskola barrukoa eta kanpukoa. Arazoa da Ikerrentzat gazteek euskaraz eskolako erregistroa izatea, baina ez kalekoa, eta horregatik aisialdian gaztelaniaz mintzatzen direla uste du.

23. "Eremu ezberdinetan zabaldu behar da euskara Iruñean" (IEA-003/006)

Euskararen egoera konpontzeaz ari da Iker pasarte honetan. Berak dio euskara ez dela hezkuntzara mugatu behar, eta ez dela ikastetxeen errua gazteek eskolatik kanpo gaztelaniaz egitea.

24. Erregistro informala irakatsi beharko litzateke? (IEA-003/008)

Ikerren iritziz ikastetxeek denbora tarte bat hartu beharko lukete erregistro informala irakasteko.

25. Erdal esamoldeak euskaraz (IEA-003/010)

Euskaraz ematen ditu Ikerrek erdarazko zenbait esamolde. Bestalde, hitanoak "tio" "jambo" eta horrelakoak ordezkari ditzakeela uste du.

26. Lagun oriotarrarekin hikaz (IEA-003/012)

Aita Etxarrikoa duenez, entzun izan du bertako familia hikaz hitz egiten, baina Ikerrek ez du sekula Iruñean hiketarik entzun. Ikasten hasi zenean, ordea, oriotar bat zuen lagun, taldeko euskaldun bakarra. Harekin hasi zen Iker hitanoa erabiltzen. Bere bikotearekin, gainera, hitanoa erabiltzen hasi zen, batez ere sare sozialen bidez komunikatzean.

27. Erregistro informalean ezin gaztelania ezabatu (IEA-003/014)

Ikerrek, neska-lagunak eta beste lagun batek euren artean hitanoa erabiltzen dute, euskara informalari dagokion erregistro batean. Hala ere, gaztelania erregistro informaletik ezabatzea zaila dela dio Ikerrek.

28. Nola sumatzen da hitanoa ahoan? (IEA-003/016)

Ikerrek oso eroso sentitzen du bere burua hitanoa erabiltzean, zuen gabezia bat betetzen duela honek.

29. Nola sentiarazten zaitu euskararen aldeko jarrerak? (IEA-003/018)

Euskara ondare garrantzitsua da Ikerrentzat, eta ez du ulertzen jendeak euskarari garrantziarik ez ematea.

30. EGA azterketa prestatzen (IEA-003/020)

Euskaltegiak aukera ematen die institutuko gazteei EGA atera dezaten, astean ordubetez lantzen dute azterketa bera. Orduak gazteekin konpartitzea aberasgarria da lkerrentzat, asko ikusi eta asko ikasten baitu.

31. Institutuko txirrinar gaztelania dakar (IEA-003/021)

Gazteak txirrinar jo eta berehala gaztelaniaz hitz egiten hasten direla kontatzen du lkerrek pasarte honetan.

32. Beste euskalkiak umorerako erabiltzea (IEA-003/023)

Lagunartean umorerako erabiltzen dituzte euskalkiak eta hizkera itxiak, baina euskara erabiltzen ez duten lagunen artean ere.

33. Bizkaiera umorerako (IEA-003/025)

Nafarreraren eta gipuzkeraren gertutasuna dela eta, barregarriena edo gustagarriena imitatzeke bizkaiera da.

34. Iruñean, euskalkirik ez? (IEA-003/026)

Euskara batua goi mailako erregistrotzat dute Iruñean, eta euskalkiak formaltasunetik ateratzeko balio duela uste du lkerrek.

35. Jendea lotsatzen da euskalkirik ez duelako? (IEA-003/028)

lkerrek ez du uste euskalkirik ez izanagatik lotsatzen denik jendea.

36. Euskalkia dutenak euskalkirik ez dutenei burla? (IEA-003/030)

Euskalkiren bat dutenek euskalki bat ez dutenei burlarik egiten dietenik ez du nabaritu.

37. Goi mailako musika ikasketak (IEA-004/002)

Telebistan entzuten zituen doinuak errepikatu egiten zituen Mikelek bere piano txikian. Beranduago, gurasoek kontserbatorioan sartu zuten.

38. Karrera amaierako kontzertua (IEA-004/003)

Ikasketak amaitzeko amaierako kontzertua egin behar du Mikelek, gitarra klasikoaren espezialitatean. Bi-hiru aldiz gitarra eraman izan du euskaltegiara.

39. Musika sentimenduak transmititzeko tresna (IEA-004/004)

Denetariko musika du gustuko Mikelek, artea da beretzat. Sentimenduak adierazteko tresnatzat du musika, harremantzeko.

40. Musikak hizkuntzak ikasten laguntzen al du? (IEA-004/005)

Mikelen iritziz, behe mailetan, ez da oso lagungarria musika, entzute hutsez behintzat ez. Letrak landuz gero, orde bai. Beti ere, taldeak eta taldeak daude, eta batzuk besteak baino ulergarriagoak dira.

41. Zein musika gustatzen zaizu? (IEA-004/007)

Errenazimendutik erromantizismorako musika asko gustatzen zaio, 20.mendekoa ez hainbeste. Bach, Vivaldi, Mozart, Bethoben... aipatzen ditu.

42. Ezagutu beharreko musikariak (IEA-004/008)

Eskolan musikari buruz gauza gutxi irakasten dela uste du Mikelek.

43. Musika pentsarazteko tresna? (IEA-004/009)

Hitzik gabeko historia da musika Mikelentzat. Hitzik gabeko musikak asko transmititu dezake, beti ere entzuten jakinda.

44. Euskararen erabileraz (IEA-005/002)

Biek diote euskara oso gutxi erabiltzen dutela. Institutuan eta zenbait festetan bakarrik erabilgarri suertatzen zaiela diote.

45. Telebista euskaraz (IEA-005/003)

Telebista euskaraz ikusten dute biek: Goazen, Hi Selfie, etab. Hala ere, txikitan gehiago ikusi izan dutela azaldu dute.

46. Parranda ezberdinak (IEA-005/005)

Parranda botatzerakoan leku ezberdinetara joan izan dira. Iruñeko diskotekak, tabernak eta beste herrietako jaiak dituzte gustuko.

47. Youtuberrak gustukoak dira gazteen artean (IEA-005/007)

Youtuberrak jarraitzen edo behintzat noizbehinka begiratzen dituela dio Ainarak. Batez ere, estatu mailan ezagunak direnak: Paula Gonu eta Dulceida bezalakoak.

48. Sare-sozialak (IEA-005/008)

Gaur egun sare-sozialak beharrezkoak direla dirudite, Instagram, Facebook, Twitter, Snapchat eta WhatsApp bezalakoak erabiliz. Hala ere, gehien erabiltzen dituzten sare-sozialak WhatsApp-a eta Instagram-a direla diote biek.

49. Mugikorra erabiltzerakoan ezarritako mugak (IEA-005/009)

Gaztetatik izan dute mugikorra Naiarak eta Ainarak; hala ere, beti jarri izan dizkiete mugak. Batez ere, ikasi beharreko orduetan.

50. Sare-sozialak menpeko (IEA-005/010)

WhatsApp izaterakoan gurasoek ez dute haien sarea kontrolatzeko beharrik izan, alabaina, bai aholkuak emateko beharra.

51. Gurasoen kezkak (IEA-005/011)

Gurasoen kezkak txikituz doaz seme-alabak hazten doazen heinean.

52. Inguruko herrietara parrandan (IEA-005/013)

Uda heltzen den garaian Iruña inguruan dauden herriko festetara joan ohi dira.

53. Ikasketek denbora asko eskatzen dute (IEA-005/014)

Elkarriketatuek kirola edota musika zuten aisialdi gisa, alabaina, ikasketek eskatzen zuten denbora faltagatik utzi behar izan zituzten.

54. Euskararen erabilera (IEA-006/002)

Euskara zein gaztelera dute biek ama hizkuntza. Hala ere, zaila suertatzen zaie esparru ezberdinetan euskaraz aritzea.

55. Euskal telebista ez dute gehiegi ikusten (IEA-006/003)

Euskal telebista oraindik ere ikusten jarraitzen dutela diote. Hala ere, txikitan marrazki bizidunak zirela eta gehiago ikusten zutela aitortu dute.

56. Musika ezberdinak gustuko (IEA-006/004)

Irratiari dagokionez, Gaztea dute gogoko bi elkarriketatuek. Anderrek musika klasikoa du gogoko eta Maitanek, berriz, reggaetona entzuteari utzi dio beste musika mota batez gozatzeko.

57. Parranda lekuei buruz (IEA-006/005)

Parranda giroan euskal musikak "rollo hobia" sortzen duela diote elkarriketatuek. Hortaz, parranda egunetan beste ezer ez den bitartean, Iruñeko alde zaharrean aritzen dira biak. Hala ere, gustuko dute giroz eta tabernaz sarri aldatzea.

58. Musika entzuteko CD-ak edo mugikorretik (IEA-006/006)

Anderrek ez du CDak erosteko ohiturarik, musika mugikorrean izatea nahiago duela dio. Maitanek aldiz, CDak erosteko zaletasuna du eta horretarako Durangoko azokara joan izan ohi da.

59. Julen eta bestelako Youtuberrak (IEA-006/007)

Anderrek ikusi izan ditu youtuberrak, hala ere, asebetetzen ez dutela dio. Maitanek, berriz, Julen youtuberra jarraitzen du.

60. Sare-sozialak (IEA-006/008)

Sare sozialak presente diraute elkarriketatuengan, WhatsApp-a, Instagram-a, Facebook-a, etab. Hala ere, gehien erabiltzen duten sare sozioala, WhatsApp-a dela diote, menpekotasun txiki bat badutela adieraziz.

61. Mugimendu feministako kidea (IEA-009/003)

Gaztetatik gazte mugimenduetara oso lotuta egon da, Atarrabiako gaztetxearen okupazioan parte hartu zuenetik. 2002. urtean Bilgune Feminista sortu zenean, mugimendu feministara gerturatu zen eta geroztik Bilgunean jarraitu du eta gaur egun, Emagin-en lan egiten du.

62. Bilgune Feminista eta Emagin dokumentazio zentroa (IEA-009/005)

Bilgune Feminista 2002. urtean sortutako erakunde feminista da eta Emagin, erakundearen barruan sortu zuten dokumentazio eta ikerkuntza zentroa. Euskal Herriko mugimendu feministaren ikerketa egin zuten.

63. Emagin zentroaren garapena (IEA-009/006)

Emagin elkarteari buruz hitz egiten du Mirenek. Ez da soilik dokumentazio edo artxibo feminista bat. Euskal Herriko mugimendu feministako ikerketarako bildutako dokumentazio guztia, Nafarroako Artxibo Garaikidera eraman zuten, Emagin-en bertan ezin zituztelako behar ziren bezala gorde.

64. Zer den feminismoa (IEA-009/008)

Feminismoa ez da gauza bakar bat: pentsamendu, antropologia, mugimendu, eta abar bezala ulertu daiteke. Orain dela 20 urte "feminismo" hitza gutxietsia zegoen. Mirenek, berarentzat feminismoa zer den, nola bizi duen eta feminista izatea zerk suposatzen duen kontatzen du.

65. Feminismoaren ideiak (IEA-009/010)

Ez dago feminismo bakar bat eta beraz, proposamen politikoak ere ezberdinak dira. Sistema patriarkala nola ulertzen duen azaltzen du

66. Mugimendu feministaren helburua (IEA-009/012)

Mugimendu feministak, generoaren ikuspegi bitarra zalantzan jartzen du. Euskal Herriko mugimendu feminista, ahalik eta inklusiboen izatea da helburua eta erronka zaila da.

67. Mugimendu feminista eta LGTB+ mugimendua (IEA-009/013)

Mugimendu feministak ez du ordezkutzen, ez LGTB+ mugimenduaren borroka ezta beste mugimendu batzuen ere. Osagarriak izan beharko lirateke.

68. Sistema patriarkala zer den (IEA-009/015)

Sistema patriarkalaren oinarria, dena bitan bereiztean dago, hierarkizazio bar sortuz eta gizonezkoei boterea emanez. Genero-sistemaren funtzio guztiak generoaren arabera banatzen ditu sistema patriarkalak eta erdigunean protagonista bezala gizonezkoa dago.

69. Heteropatriarkatua (IEA-009/016)

Sistema patriarkalaren oinarri nagusia heteropatriarkatua da. Politika, ekonomia eta gizartearen indarra arau heterosexualetan oinarrituta dago eta horren arabera generoaren arabera paper bat edo beste hartzen du bakoitzak.

70. Maitasun erromantikoaren mitoa (IEA-009/019)

Sistema patriarkalaren mitoetako bat, maitasun erromantikoa da. Ezaugarriak aipatzen ditu Mirenek: harreman sentimentalak zoragarriak izango direnaren sinismena, arazorik gabeko harremana, monogamoa, seme-alabekin, betiko maitasuna... Maitasun erromantikoak, emakumezkoa osoa izateko gizon bat eta haur batzuk izan behar dituela sinetsarazten du. Mirenek kontatzen du asko borrokatu behar dela sinismen horretatik ateratzeko.

71. Monomagia eta maitasun erromantikoa (IEA-009/020)

Monogamiaren sinismenean, bikotekidea beste edonoren gainetik egon behar da, seme-alabak izan artean. Emakumearen funtzioa emazte ona eta ama ona izatea da eta harreman afektibo asko horren arabera eraikitzen dira. Pandemia garaian, familia-eredu horietan egituratu dira legediak eta horrek

arazo larriak eragin ditu horrelako familia-sistemetatik kanpo geratzen direnentzat.

72. Pandemia eta bakarrik bizi direnak (IEA-009/022)

Pandemia garaian, elkarbizitzarako kiderik ez izateak, bakarrik geratu behar izana ahalbidetu du eta honek frustrazio handia sortu du bakarrik bizi direnengan. Bakoitzak bere autua libreki hartzeko eta hau frustraziorik gabe bizitzeko tresna egoki bat feminismoa dela kontatzen du Mirenek.

73. Emakumeen kanpo-presioak; edertasun-kanonak (IEA-009/024)

Txikitatik emakumezkoak besteengana egon behar direla erakusten da: polita egon, isilik, baketsu... eta hortik ateratzea gaizki ikusia egoten da: ez makillatzea, moda ez jarraitzea, ez depilatzea... Askotan emakumeentzat zaila da jakitea zer nahi duten, kanpotik eragin eta eraso asko daudelako.

74. Mugimendu feminista eta kolektiboki antolatzea (IEA-009/026)

Kolektiboki emakumeak bakarrik antolatzea batzuetan kritikak sortzen ditu baina gaur egun oraindik ere espazio ez mistoetan biltzea baliotsua dela uste du Mirenek.

75. Berdintasuna eta Feminismoa (IEA-009/028)

Berdintasunari eta aukera-berdintasunari buruz hitz egiten du. Gaur egun horrenbeste bereizkeria sortzen dituzten botere-harremanen ikuspegia pixkanaka desagertzen joatearen aldekoa da Miren.

76. Euskal Feminismoa (IEA-009/030)

Zaila da mugimendu feminista bat feminismo mota zehatz batean sartzea. Hala ere, Europan eta Euskal Herrian, Estatu Batuetan sortutako feminismo erradikalaren korrontea da nagusi. Euskal Herriko kasuari buruz hitz egiten du.

77. Transfeminismoa; Feminista "dekolonialak" (IEA-009/031)

Transfeminismoaz hitz egiten du: noiz eta nola sortu zen, aldarrikapenak, izenaren jatorria... Euskal Herrian, mugimendu feminista "dekolonial"-ak daude, anti-arrazistak.

78. Feminismoaren ikurrak (IEA-009/033)

Feminismoaren ikurrei eta bakoitzaren jatorriari buruz hitz egiten du: eskuekin egindako hirukia, kolore morea, "Zutik emakumea" kantua, emakumearen ikurra,

79. Emakumearen gorputza ikur feminista bezala (IEA-009/034)

Emakumea objektu gisa erabiltzearen kontrako aldarrikapenetan, emakumearen gorputza asko erabili da.

80. Martxoaren 8a Euskal Herrian (IEA-009/036)

Euskal Herrian lehenengo Martxoaren 8-ko manifestazioa Bilbon ospatu zen, Franko hil eta pare bat urtetara. Ordutik, urtero ospatu da. Martxoaren 8-aren jatorria kontatzen du Mirenek.

81. Feminismoaren inguruko etorkizuneko ildoak (IEA-009/038)

Feminismoaren ikuspegitik esparru asko daude oraindik ikertzeko: bertsolaritza, komunikabideak, sare-sozialak, kazetaritza, hizkuntza...

82. 2019ko Jardunaldi Feministak I (IEA-009/039)

2019an Durangon egin ziren Jardunaldi Feministetan egin ziren mahai-inguruei buruz hitz egiten du: "Bizitzak erdigunean" koordinatzaile feministaren sorrera, indarkeria matxistaren aurkako borroka, feminismo "dekoloniala", mugimendu feministaren antolakuntza...

83. 2019ko Jardunaldi Feministak II (IEA-009/040)

2019ko Jardunaldi Feministetan jorratu ziren gaiak: prostituzioa, bake-prozesua eta autodeterminazioa, amatasun subrogatua, zaintza-lanak...

84. Mikromatxismoak (IEA-009/042)

Mikromatxismoen azalpena, iceberg-aren irudia erabiliz egiten du Mirenek. Agerikoak ez diren eta hain erraz identifikatzen ez diren jarrera matxistak dira. Adibideak jartzen ditu.

85. Indarkeria matxista motak (IEA-009/043)

Eraso edo indarkeria matxistei buruz hitz egiten du. Mota ezberdinetakoak izan daitezke eta bakoitzaren ondorioak aipatzen ditu.

86. Autodefentsa feminista (IEA-009/045)

Indarkeria matxista jaso duen emakume batek horri aurreko egiteko dituen tresnei buruz hitz egiten du Mirenek. Bilgune Feministatik, autodefentsa feministaren estrategia erabiltzen dute gehienbat. Zer den azaltzen du.

87. Indarkeria matxistaren aurkako baliabideak (IEA-009/046)

Instituzioetatik indarkeria matxistaren aurkako baliabideak daude: emakumeen etxeak, salaketak jartzeko bideak, gizarte-zerbitzuak, osasun-zerbitzuak... Kide feministekin elkarkezaren garrantzia, esperientziak partekatzeko.

88. Feminismoa hezkuntzako curriculumean (IEA-009/048)

Emagin-ek, pedagogia feminista jorratzen du eta ikastetxeetan irakasleei formakuntzak ematen dituzte, ikasleekin feminismoa lantzen dute. Hezkuntza curriculumean feminismoaren gaia egon beharko litzateke eta ez horrenbeste azpikontratu bitartez egin.

89. Hipersexualizazioa (IEA-009/053)

Emakumearen irudia oso hipersexualizatua dagoen arren, aurrerapauso handiak ere egin direla uste du, gaur egun hainbat emakume-eredu daudelako.

90. Feminismoaren olatuen kontzeptuaren hutsuneak (IEA-009/055)

Munduko mugimendu feministaren historia ezin da orokorrean kontatu, tokian-tokikoa izan delako. Feminismoaren historia "olatuen" bidez kontatzeak hutsune asko ditu, mendebaldeko feminismoa bakarrik sartzen delako kontakizun honen barruan.

91. Feminismoaren olatuak: Frantziako Iraultza (IEA-009/056)

Frantziako Iraultzan emakume boteretsuek beraien eskubideak aldarrikatu zituzten, iraultzaren ideologien barruan.

92. Feminismoaren olatuak: Emakume-taldeen sorrera (IEA-009/057)

Frantziako Iraultzan hasitako mugimendu feministaren ondorio nagusia, mugimendu sufragista izan zen eta Estatu Batuak eta Ingalaterrako emakumeek bozkatzeko eskubidearen alde borrokan hasi ziren. Mugimendu honetaz gain, ideologia berdineko emakumeak biltzen hasiko dira (sozialistak, anarkistak...) eta lehenengo emakume-talde antolatutakoak sortzen dira.

93. Feminismoaren olatuak: XX. mendea (IEA-009/058)

XX. mendean, Simone de Beauvoir eta Angela Davis-en liburuak mugimendu feministarentzat pizgarri garrantzitsuak izan ziren. Munduko gerrek etenaldia suposatu zuten mugimenduan. 60-70. hamarkadetan, gaur egun ezagutzen den mugimendu feministaren eztanda eman zen.

94. Euskal Herriko feminismoaren sorrera (IEA-009/059)

Euskal Herrian, mendebaldeko mugimendu feministaren olatuez gain, 80. hamarkadan feminismo internazionalistaren ideiek eragin handia izan zuten euskal feminismo erradikalean. Euskal Herriko feminismoaren abiapuntua Ipar Euskal Herrian dago, 1968ko maiatzaren ondorioz eta Hegoaldean, Francoren heriotzaren ostean. Garai hartan zein talde zeuden eta nola antolatzen ziren kontatzen du Mirenek. 80. hamarkadan talde feminista asko zeuden: antimilitaristak, internazionalistak, gazteak, okupak, independenteak, abertzaleak...

95. Mugimendu feministaren eztanda Ipar Euskal Herrian I (IEA-009/061)

1968ko Maiatzaren ondorioz, Ipar Euskal Herrian mugimendu feministaren eztanda handia eman zen. Mirenek prozesu hau nola izan zen eta aldarrikapen nagusiak zeintzuk izan ziren azaltzen du: kontrazepzioa, abortua, planifikazio familiarra...

96. Mugimendu feministaren eztanda Ipar Euskal Herrian II (IEA-009/063)

Hegoaldetik Iparraldera emakume asko joaten ziren abortatzera. Haurtzaindegi zerbitzuekin lan handia egin zen ere eta emakumeen laneratzea errazagoa zen.

97. Mugimendu feministaren eztanda Hego Euskal Herrian I (IEA-009/065)

Basaurin 1976. urtean 11 emakume atxilotu zituzten abortatzeagatik eta horren aurrean, hegoaldeko mugimendu feminista antolatu eta artikulatu zen. Frantzia abiatutako hainbat kanpaina egiten hasi ziren hegoaldean ere.

98. Mugimendu feministaren eztanda Hego Euskal Herrian II (IEA-009/066)

Trantsizio demokratikoan, emakumearen lotutako lege frankistek indarrean jarraitu zuten, aldaketarik gabe. Abortuaren despenalizaziorako legea zela eta, 1985-2010 urte bitartean abortuaren eskubidearen aldeko hainbat aldarrikapen egon dira. Indarkeria matxistaren aldarrikapenak ere hasieratik egon dira.

99. Mugimendu feministaren lorpenak (IEA-009/068)

Emakumearen irudia ("emazte ona, ama ona" eta aukerak aukerak (ikasteko, lan egiteko...)) aldatu egin diren arren, emakumeentzat zailagoa da lanpostu jakin batzuk lortzea (boteredunak, prestigiozkoak...). Gauza batzuen gainazala aldatu den arren, erroak ez dira aldatu eta oraindik ere emakumearen irudi "ona"-ren ideia nagusia da.

100. Mugimendu feministaren erronkak (IEA-009/069)

Amatasunari uko egiteari, zaintza-lanak emakumeen esku geratzeari eta indarkeriari buruz hitz egiten du.

101. Emakumearen lan-jardun bikoitza (IEA-009/071)

Emakume perfektuaren irudia ez da asko aldatu azken hamarkadetan. 70. hamarkadatik aurrera, lan-merkatuan emakumearen presentziarekin batera emakumearen lan-jarduna bikoiztu egin da.

102. Punk-a, hardkore-a eta feminismoa (IEA-009/073)

Musikaren eszenaren inguruan egin zituzten hausnarketa batzuetan, oholtzaz gain, teknikari eta antolatzaileen artean emakume oso gutxi zeudela konturatu ziren. .

103. Emakumearen presentzia musika-eszenan I (IEA-009/074)

Musika mota ezberdinetan emakume musika asko dauden arren, asko ez dira ezagunak, medioetan garrantzi gutxi ematen zaielako. La Basu eta hip-hop-ari buruz hitz egiten du. Feminismotik egindako musika-taldeak.

104. Emakumearen presentzia musika-eszenan II (IEA-009/075)

Gaur egun, musikaren munduan emakumeak izateagatik bakarrik deitzen dietela adierazten duten gizonezkoak daude. Horri buruz hausnartzen du Mirenek.

105. Emakumeari exigentzia-maila musikan eta ahalduntzea (IEA-009/077)

Oholtza gainean, emakumeei gehiago eskatzen zaie gizonezkoei baino. Putzuzulo gaztetxean egin dituzten kontzertu, bertsio-gau eta bestelakoetan ahalduntzeko aukera eman da.

106. Emakumearen presentzia musika-eszenan III (IEA-009/081)

Euskal Herriko musika eszenan emakume oso gutxi ikusten dira antolakuntzan, teknikari bezala, argiztapenean... Miren musika-talde bateko abeslaria da eta eszena txikietan jotzen dute gehienbat. Beti oso ondo tratatua sentitu da.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-02-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com